



ESKOLAKO AGENDA 21- II. FOROA- 2006/06/09an

Parte Hartzaileak:

KARMELO IKASTETXETIK

- Ainhoa Larrinaga- Ikaslea
- Ane Barrenetxea- Ikaslea
- Paule Ranero- Ikaslea
- Maria Salcedo- Irakaslea

LAUAXETA IKASTOLATIK:

- Josu Kastresana- Ikaslea
- Jon Atxutegi- Ikaslea
- Gillen Oarbeaskoa- Ikaslea
- Igone Zuazaga Irakaslea
- Aitor Pagaldai- Irakaslea

LARREA HERRI IKASTETXETIK

- Amaia Frade- Ikaslea
- June Gorospe- Ikaslea
- Ane Bernaola- Ikaslea
- Puri Zugasti- Irakaslea.
- Jaione Basterretxea- Irakaslea.

UDALETXETIK

- Sara Chamizo- Hezkuntza Saileko Zinegotzia
- Josu Perea- Udal Ingeniaria
- Jone Etxebarria- Tokiko Agenda 21eko kudeatzailea

Esandakoak:

- Jone Etxebarriak hasierako agurra eta sarrera egin dauz. Bertan hiru ikastetxeen lana zoriondu eta eskertu eta eguneko gai ordena azaldu dau.
- Ondoren Sara Chamizok berbea hartu eta udalaren Tokiko eta Eskolako Agenda 21aren inguruan onartu dauazan konpromezuak zeintzuk diran azaldu dauz. Datorren urteari begira lanean jarraitzeko ardura hartu dau udalaren izenean taldea kurtso hasierako Forora gonbidatuz.
- Guzti honegaz, ikasleen parte hartzea bideratu da:
 - Karmelo Ikastetxeko ikasleek urtean zehar egindako ekintzen barri emon dabe.

1.- Zer egin dugu Larrea, Lauaxeta eta El Carmelo eskolak aurten?

- 1- Agenda 21ean parte hartzeko konpromisoa hartu dugu
- 2- Ingurumen batzordeak eratu ditugu
- 3- Eskolako partaide guztien inplikazio lortu nahi izan dugu
- 4- Egoeraren diagnostikoa egin dugu:
 - Kurrikulum: aktibitateen zerrenda egin
 - Partaidetza: ze esparrutan eta nola hartzen duten parte komunitateko partaide guztiak aztertu dugu
 - Kudeaketa: hondakinen kudeaketa nola egiten den aztertu dugu. Lan hau ikasleek guztiekin egin dugu.



- 5- Sentsibilizazio kanpainak egin eta parte hartu ditugu:
 - Kartelak egin
 - Inkestak
 - Bideo emanaldiak
 - Eskola garbia kanpaina
 - Loren banaketa
 - Udaletxearekin batera:
 - Auto gabeko eguna
 - Zuhaitz eguna: zuhaitzak landatu eta identifikatu
 - Aste berdea
 - 6- Ekintza plana egin dugu, bertan egindako ekintzetatik batzuk aipatuko ditugu:
 - Hondakinen kudeaketa egokia egiteko ontziak jarri ditugu
 - Papera berrerabiltzeko ontziak jarri ditugu gela guztietan
 - Birziklapen tailerra antolatu dugu(papera)
 - Paper kontsumo kontaketa egokia egiteko prozesu bat jarri dugu
 - Paper kantitateak neurtzeko pisuak jarri ditugu
 - Hondakinekin eskulanak egin ditugu
 - Indikadoreak finkatu ditugu (gero ebaluaketa bat egiteko)
 - 7- Beste ekintza batzuk ere ingurumenarekin lotuta:
 - Irteerak, adibidez, Urdaibai, Basondo...
 - Egonaldiak, adibidez, Pedernales...
 - 8- Beharrezan dauden gizataldeei laguntzeko bost kanpaina:
 - Arropa
 - Janari, adibidez gabonetan Karitas kanpaina
 - Jostailu
 - Merkadilloa: lortutako dirua Esku Elkartuari bidaltzeko
 - Apadrinamendu proiektuak
 - 9- Formazioa A21 ari buruz: hau gure irakasleek egin dute
- Bigarren atalean, Lauaxeta Ikastolako ikasleek datorren urteari begira euren gain hartzen dabean konpromisoen azalpena emon dabe.
- 1- Agenda 21ean parte hartzeko konpromisoa hartu
 - 2- Ingurumen batzordea sortu
 - 3- Indikadoreak finkatu
 - 4- Neurketak egin
 - 5- Diagnostikoak egin
 - 6- Paper kantitateak neurtzeko pisuak jarri.
 - 7- Beharrezan dagozan gizataldeei laguntzeko hiru kanpaina:
 - a. Erropa
 - b. Jostailu
 - c. Janari
 - 8- Irteerak
 - a. Urdaibai (fadura)
 - b. Basando
 - c. Artigas
 - 9- Egonaldiak (Pedernales)
 - 10- Sensibilizazio kanpainak
 - a. Auto bako eguna



- b. Aste berdea
 - c. Zuhaitz eguna
- 11-Formazioa agenda 21eri buruz
- o Hirugarren atal batetan, Larrea Eskolako umeak, eskolan landutako gaiaren inguruan eta Eskolako Agenda 21aen inguruan, udalari bideratutako eskariak luzatu ebezan.

Eskola Agenda 21 proiektuan Zornotzan aurten parte hartu dugun ikastetxeak honako eskari hauek ditugu udalari zuzentzeko. Lau multzo nagusitan bana daitezke ikusi dugu eta horrela aurkeztuko dizkizuegu:

a) **"Hondakinak"** gaiarekin zerikusia dutenak:

- Ontzi hori desberdinak behar ditugu ikastetxe guztietan ontzien bilketa egokiagoa lortzeko: ertainak pasabide eta patioetan jartzeko eta txikiagoak gela batzuetarako.
- Karmelo Ikastetxean paperaren bilketa orokorra egiteko beste ontzi mota baten beharra ikusten dute.

b) **Zuhaitzen** gaiarekin zerikusia dutenak:

- Gure ikastetxeetan hainbat zuhaitz mota ezberdin ditugu eta beraien zainketa eta sailkapen lanetan aritu gara guztiok, hori dela eta, momento batzuetan udaletxeko teknikoren baten lagunatza behar izango genuke eta, beste alde batetik, zuhaitzen identifikazio datuak jartzeko plaka egokiak.
- Zuhaitz egunaren inguruan eskoletarako ere zuhaitz batzuk bana daitezke baina hobeto ikusiko genuke tamaina handiagokoak izatea nahiz eta bat edo bi baino ez izan.

c) Gure inguruan hondakinak eta birziklapena gaiak hobeto ezagutu eta lantzeko hainbat **gune** (birziklapen plantak,...) **eta baliabide** izango dira, hauei etekin handiagoa ateratzeko ikastetxeetarako gida zerbitzua edota beste balabide batzuk (autobusa...) jartzea interesgarria iruditzen zaigu.

d) Azkenik, **gaia girotu eta indartzeko** proiektu barruan dauden ikasle eta gurasoei bideratutako sentsibilizazio kanpainak antolatzea interesgarria iruditzen zaigu (eskola orduetatik kanpo zein barruan. Batez ere HH eta LHko ikasleentzat, bideo emanaldi, txotxongilo saio, filmeak,...). Bestalde, ikasle partaide guztiei zuzenduta eta beraiek ezagutu eta harremanak sendotzeko jai berezi bat antolatzea ere idea polita izan daiteke.

- Umeen proposamenak entzunda, udaleko ordezkariak, planteatutako gaien inguruan honeko honek adierazi ebezan:
 - o Hondakinekin erlazionatutako gaiaren inguruan eskolak eurak bakoitzaren ezaugarriak ikusita, euren egokitutako eskaria egitea eskatu jaken. Eskaria irailean garatzera konprometitu ziran eskola ezberdinetako ordezkariak.
 - o Zuhaitzen inguruan ere, euren proposamena batu eta hurrengo urterako ekintza ezberdinak planteatu daitezkeela onartu eben.



Tokiko Agenda
Agenda Local 21



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- Hurrengo ikasturterako onartuta dago Eskolako Agenda 21aren barruan udalak eskaintza ezberdinak egitea landutako gaiaren inguruan irteera eta ekintza ezberdinak planteatuz horretarako baliabideak ere bideratuko diralarik.
 - Sentsibilizazio kanpaina ezberdinetarako umeen proposamena jasota gelditzen da eta hurrengo ekintza handirako, Mugikortasun Astearen ospakizuna, datorren irailaren lehenengo astean eskoletara egun horreetan burutzeko ekintzen proposamena bialtzea proposatzen da.
- Guzti honegaz udaleko ordezkariak hiru hezkuntza zentroetako ordezkariak zoriondu ebezan ikasturte osoan zehar egin izandako lana dala eta. Hurrengo ikasturtean lanean bardin ekitera animatu ebezan.
- Azken agurra Sara Chamizo zinegotziaren esku egon zan. Eskolako Agenda 21aren garrantzia eta danok lanean jarraitzeko daukagun konpromisoarekin bilera amaitutzat emon zan.